

UROLA ITSASADARRA BABESTEKO ETA MANTENTZEKO PLAN BEREZIA


1. FASEA: BILERA IREKIAK

B.- Artadi eta Bedua

1. Plan Bereziaren helburuak

- Baliabide naturalak kontserbatu, hobetu eta berreskuratu.
- Estuarioaren berezko dinamika bermatu, berreskurapena ahalbidetuz.
- Habitatak eta fauna-flora espezieak kontserbatu, eta arriskuan edo ahulenak direnak babestu.
- Uren kalitatea bermatu.
- Espezie exotiko inbaditzaileak ezabatu.
- Hiritarren presioa eta aisaialdirako erabilera arautu.

2. Plan Bereziaren eremua




Azalera osoa: 160,32 Ha.

Azalera Zumaian: 154,56 Ha (%96,4).

Azalera Zestoaan: 3,72 Ha (%2,3).

Azalera Getarian: 2,06 Ha (%1,3).

3. Artadi-Bedua eremua



Azalera: 90,23 Ha (Plan Bereziaren %56,3)

Azalera Zumaian: 86,51 Ha.

Azalera Zestoan: 3,72 Ha.


4. Udalaz gairik gabeko plangintza eta esparru juridikoa

- Itsas-lehorreko Jabari Publikoa eta babeseko zorgunea: bai estuarioa eta baita padura eremuak Itsas-Lehorreko Jabari Publikoaren¹ baitan geratzen dira (33,36 Ha, Artadi-Bedua eremuaren %37). Beren ingurua eta mendi-hegala berriz (31,90 Ha, eremuaren %35) babeseko zorgunearen² arauari menpe daude (Kosten Legeak ezarritakoaren

¹ Gaztelaniaz Dominio Público Marítimo Terrestre

² Gaztelaniaz Servidumbre de Protección

arabera). Beste zenbait eremu Jabari eta zorgune hauetatik kanpo geratzen dira, hala nola, Artadiko zenbait zati, Gorostiaga aldeko ibarra, Basustagaina eta abar.




- Errepideen babeseko zorgunea: N-634 errepideari dagokion Jabari Publikoak 8 metroko zabalera du errepidearen alde banatan eta babes eremuak berriz 50 metroko zabalera alde banatan. GI-3760 errepidearen kasuan Jabari Publikoa eta babes eremua 3 m eta 30 m dira alde banatan, hurrenez hurren.
- LAA, LZP, LAP³ (Hezeguneen LAP, Itsasertzeko LAP): lurraldearen antolaketako tresna hauek denek estuarioa, artadiak, Beduako irlak eta haien inguruko padurak babesteko proposamena jaso edota garatzen dute. LZPren kasuan, Basadizarreko Ibarra


³ Lurrealdearen Antolaketarako Artezpideak (LAA), Lurrealdearen Zatiko Planak (LZP) eta Lurrealdearen Arloko Planak (LAP).

‘nekazaritzarako interesa duten eremutzat’ hartzen du. Hezeguneetako LAPk ere nekazaritza-abeltzaintzarako kategorian izendatzen du eremu hau bera.

- Bai LZPk (2006), bai Hezeguneen LAPak (2004), Gorostiagako ibarra interes naturaleko eremutzat izendatu zuten, babes berezia proposatuz eremu honetarako. Izendapen hori bertan behera geratu da bi kasutan, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak jarritako errekurtsoei erantzunez emandako ebazpenak direla eta. Besteren artean, ebazpen hau betetzeko helburuarekin, Hezeguneen LAPren 1º Aldaketari hasiera eman zitzaion, Gorostiagako ibarra ingurumen hobekuntzarako eremutzat hartuz. Aldaketari Hasierako Onarpena eman zitzaion 2008 urtean.



- Natura 2000 Sarea. 'Urola Itsasadarra' Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE). Europa mailan babesa behar duten naturguneen sarea da, 1992ko 'Habitat' Europear Zuzentarauaren bidez martxan jarri dena. 2010ko abenduan hasierako onarpena lortu zuen eremu honen 'Kudeaketa planak' 2003 urtean eremu honentzako finkaturiko jatorrizko mugak zabaltzea proposatzen du. Plan Berezia egiteko aipatu proposamenean jasotako eremua hartu da oinarritzat, Basagaineko zati bat gehituz.



5. Udal plangintza egituratzailea (Arau Subsidiarioak)

- Zumaiko zatia:
 - Babes Berezia (D.1). Interes naturalistiko eta paisajistikoa (IN2. Urolako itsaslabarrak; IN4. Beduako irlak eta ingurua; IN5. Artadiko artadia). 2. Sistema Orokorrak (19.S.O Artadi)
 - Babes Berezia (10.S.O. Urola ibaia).
- Zestoako zatia:
 - Ibai eta erreken babeserako lurrak
 - Babes paisajistiko eta interes arkeologiko duten eremuen lurrak.

6. Udal plangintzaren garapena (Onartutako Plan Bereziak)

Ez da garapeneko Planik garatu eremu honetan. Basusta aldera mugakide diren lurretan kanpin bat egiteko Plan Berezia izapidetzen ari da.

7. Beduako meandroaren bilakaera: 70ko hamarkadan hasi ziren aldaketa nabarmenenak, meandroan betelana egin zenean. 80ko hamarkadan Egurko eta Basusta inguruko baratzen ordez industria- eraikin batzuk agertzen hasi ziren. 90ko hamarkadako erdialdetik aurrera Basusta eta J.M. Korta industrialdeak eraiki ziren. Aurreko hamarkadan Basustako EDAR eraiki zen.



1969



2001

8. Baliabide naturalak


- Estuarioaren bi aldeetako mendi-hegalak malda handia dute, %50 baino gehiagoko penditza duten eremuak ugariak direlarik.

- Ahalmen agrologikoa: Basadizarreko ibarrean ahalmen agrologiko handiko lurak daude, nahiz eta drainatze sare trinkoa beharrezkoa den.
- Estuarioaren uren kalitatea (Ur Agentziaren jarraipen sarea): Ona.
- Landaredi potentziala:
 - Estuario eta padurak: fondo lohitsu edo hondartsuak, itsasbeherak estaltzen ez dituenak; komunitate halofiloak; komunitate azpihalofiloak.
 - Artadiak.
 - Hariztiak eta Baso misto atlantikoak.
 - Ibaiertzetako altzadi kantauriarra.
- Interes komunitarioko habitatak:

UE KODIGOA	Deskribapena	Azalera Plan Bereziaren eremuan (Ha)	Plan Bereziaren eremuaren %	Azalera Artadi-Bedua eremuan	Artadi-Bedua Eremuaren %
1130	Estuarioa	35,18	21,94%	16,32	18,09%
1140	Itsasbeheran estali gabe geratzen diren lautada lohitsu edo hareatsuak	14,82	9,24%	10,75	11,91%
1310	Urteroko landaredi aitzindaria, <i>Salicornia</i> -rekin eta eremu lohitsu edo hareatsuetako beste espezie batzuekin	0,004	0,002%	0,004	0,004%
1320	Spartina-zelaiak	1,54	0,96%	1,32	1,46%
1420+1330	Padurako sastrakadi halofiloen eta larre gazi atlantiarren mosaikoa.	2,26	1,41%	1,20	1,33%
4030	Txilardi lehor europarrak	1,31	0,82%	1,31	1,45%
6210*	Belardi lehor erdi-naturalak eta karedun sustratuetako sastraka-eiteko formazioak	1,00	0,62%	1,00	1,11%
91E0*	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> ibarbasoak	3,52	2,20%	0,11	0,12%
9340	<i>Quercus ilex</i> eta <i>Quercus rotundifolia</i> basoak	24,88	15,52%	23,96	26,55%

- 1420 eta 9340 habitaten kasuan izan ezik, gainerako habitaten kontserbazio egoera 'desegokia' edo, kasu gehienetan, 'ezkorra' da 'Urolako Itsasadarra' KBEn⁴. Txilardi lehor, belardi lehor erdi-natural eta segabelardi pobreen kasuetan ez da baloratu habitataren egoera, erdi-natural diren habitat hauetan urtetik urtera aldaketa handiak izaten direlako, lursailen erabileraren arabera, eta gainera ez dira funtsezko elementuak kontsideratu KBEn.
- Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren 1º Aldaketak Gorostiagako betelanaren esparrua estuario eta paduretako habitatak berreskuratzeko eta zabaltzeko potentzial handiko gunetzat jotzen du. Gune horren ingurumen berreskurapenak 1130, 1140, 1130, 1320 eta 1420 habitaten egoera hobetzea ekarriko luke, batik bat.

⁴ KBE: Kontserbazio Berezikiko Zona (Gaztelaniaz ZEC: Zona de Especial Conservación)



- Flora:
 - Urolako estuarioan paduretako guneak zatituak eta sakabanatuak daude. Dena den, dibertsitate floristiko garrantzitsua mantentzen dute, 21 espezie desberdinekin, Gipuzkoako estuario guztietako handiena. Espezie hauen artean *Armeria maritima*, *Cochlearia aestuaria*, *Glaux maritima*, *Limonium humile* eta zenbait *Salicornia* agertzen dira. Azpirramagarria da *Limonium humile* eta *Glaux maritima* espezieen presentzia, izan ere EAEn mantentzen diren *Limonium humil*eren bi populazio bakarretako bat Zumaian dago (bestea Iñurritzan dago) eta Beduako irletan ugari den *Glaux maritima* populazio hau Gipuzkoak ezaguna den bakarra da.
 - Beduetako irletan ere Gipuzkoan ezagutzen den, eta euskal itsasertzeko bakarrenetarikoa den, *Spartina maritima* populazio bat ageri da, 10 m² eskaseko azalerako gune batean.
 - Artadietan *Ruscus aculeatus* espeziearen aipamena egin da, nahiko zabaldua dagoena, eta 'Interes bereziko' espeziea Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan azaltzen dena.
- Fauna:
 - Estuarioko hegoaldeko zatiak, Beduako irlen inguruan, aldi baterako babesa eskaintzen die hegaztiei. Horien artean azpimarratzekoak dira: lertxun hauskara, lertxun gorria, lertxuntxo txikia, amiltxori arrunta, zenbait anatida, martin arrantzalea; arrano arrantzalea ere ikusten da inguru horretan, abuztu bukaeratik urria arte.
 - Uretako hegaztien jarraipenaren 2011ko denboraldiko emaitzen txostenaren arabera, urte honetan gune honetan habia egiten duten bi espezie identifikatu dira: basahatea eta txirritxo txikia. Horrez gain, negua igarotzen duten hegaztien 2011ko erroldak 17 espezieetako 300 uretako hegazti aipatzen ditu eremu honetan. Urola itsasadarrean bertan negua igarotzen duen lertxun hauskararen EAEko kolonia garrantzitsuena kokatzen da.
 - Estuarioetakoak berezko diren arrain espezieen artean, honakoak identifikatu dira azken laginketetan: muxarra, platuxa, zarbo beltza, mihi-arraina; baita espezie migratzailea den aingira ere.
- Fungi erreinua: 'Artadiko' artadia interes handiko eremua da espezie mikologikoentzat, eta azkeneko urtetan espezie ugari identifikatu dira bertan. Aranzadi elkarte horien jarraipena ari da egiten azken urteotan.
- Espezie exotiko eta inbaditzaileak: estuarioan jatorri exotikoa duten 13 landare-espezie aipatu izan dira, horietako 7 estuarioetako berezkoak, horien artean *Arundo donax* edo *Spartina alterniflora*. Azken hau da gaur egun mehatxu handienetakoa, tokiko *Spartina maritima* ordezkatzeko ari delako. Koniferoen (*Pinus radiata*) landaketaz gain,

hostozabalen basoetan (harizti eta baso misto atlantikoetan) sasiakazia espezie inbaditzailea asko ugartu da, eskuin ibaertzeko Gorostiaga inguruko mazelan batez ere.

9. Ingurumen arriskuak

- Uholde arriskua: Oso handia Beduako auzo inguruan (Beduaundi, baratzetako irla), handia Basadizarreko baratzetan eta txikia Gorostiagako betelanaren ibaiertzean.
- Higadura arriskua: Oso handia % 50 baina handiagoko penditzak dituzten mendi-hegaletan, bereziki zuhaitz-estalkirik ez duten eremutan. Luizi txikiak antzeman dira.
- A-8 autopistatik jasotzen den zarata maila handia da, 60 dB(A) tik gora egunean zehar Bedua auzoa eta eremuaren hegoaldeko zatian. Azpiegitura honek ez du zati honetan sortzen duen zarata-maila murrizteko inongo elementurik.

10. Erabiltzaileak

- Jarduera ekonomikoak: nekazaritza (Basadizarreko eta Beduako baratzak), basogintza, bisita gidatuak (piraguan edo oinez), arrantza (angula arrantza), ostalaritza (Beduaundi), landetxea (Landarte).
- Aisialdia: oinezko paseoak eta ibilbideak (trenbide pasealekua, Artadi), arrantza (Arbustain Motor Elkarte, Anade Elkarte, banakakoak), piraguistak (banakakoak, udako kurtsoak), itsas-motorrak, uretako eskiak eta abar.
- Kirola: piraguistak (Itxas Gain Kirol Elkarte), arraunlariak (Aita Mari Arraun Elkarte).


11. Jabetza

Eremuaren erdia baino gehiagok, zehazki 48,73 ha (eremuaren %55), jabetza publikoa du, izan Itsas-Lehorreko Jabari Publikoa edota Zumaia Udalaren jabetza. Gainerako 40,64 ha (eremuaren %45) jabe pribatuen lursailak dira.

12. Eremu andeatuak eta aurreikusitako arazoak

- (1) Gorostiagako betelanaren ondorioz, paduretako eremu zabala galdu da. Eremuak 7ha. ko azalera du eta ingurumenaren aldetik berreskuratzeko potentzial handia du. Erabateko berreskurapenak eremua bere lehenagoko kotan uztea eskatuko luke, eta horrek ibaian gorako baldintza hidraulikoetan (uholde arriskuen ingurukoak) onurak eragingo lituzke. Haatik, berreskurapen honek eta berauk ekarriko lituzkeen lur-mugimenduek, kostu ekonomiko handia izan dezaketela kontuan hartu behar da.
- (2) Landaredi eza ibaiaertzeko pasealekuan (trenbide pasealekua) eta Basadizarreko ertzan.
- (3) Luizi eta higadura arriskua, zuhaitz-estalkia ez duten malda handiko mazaletan (Artadi, Basustagain).

- (4) Espezie exotiko eta inbaditzaileen hedapena, bai paduretan (*Spartina alterniflora*) bai basoetan (*Robinia pseudoacacia*).
- (5) Erabilera batzuen ondorioz (abiadura handiko nabegazioa motorrez edo itsas-eskiekin, kanal handitik kanpo ibiltzea) zarata sortuz eta babestutako areak zapalduz, interesa duten fauna eta flora espezieak kaltetuta gerta litezke.
- (6) Bedua auzoan zegoen irlaren kanalaren uren sarbidea itxita dago.
- (7) Eskuin ibaiertzean, Artadin, bertan behera utzitako ontziralekua (eraikina eta inguruko hormigoizko aztarnak), Jabari publikoan dago eraikia.
- (8) Bedua auzoan bertan behera utzitako zementu fabrika eta ontziola-ontziralekua.
- (9) Eremu babestuaren inguruan oinezko ibilbide osoa eratzeko zenbait eragozpen daude: Artadiko bidezidorrak landarediak itxi ditu, zati batzuetan segurtasun falta dago (bai Artadin, bai Bedua eta Kanterako gaina arteko GI-3760 errepide bazterra), Txantonenea eta Gorostiaga arteko konexio falta (ez bada J.M. Korta poligonotik), Basagain eta Basadizar arteko bidezidorraren egoera...



13. Natura eta Giza Paisaia

- Inguruak kalitate handiko paisaia osatzen du, baita ikuspegi naturalistiko batetik, nahiz eta jatorrizko estuarioaren azaleraren zati bat galdu den (Basustako industrialdea, Gorostiagako betelana). Halere, elementu batzuek ikuspegia desitxuratzen dute (antenak, goi tentsioko argindar lineak, bertan behera utzitako eraikinak, etxebizitzetako eraikinak Basustagainan eta Artadin, Oikia-Zumaia errepidearen zabalpenerako egin dituzten desmuntatze-ezpondak). Ikusgarritasun maila handia da Artadi auzotik, baita ezker ibaiertzako oinezko ibilbidetik (trenbide pasealekua, Basadizar).
- Artadi eta Bedua eremuaren mugak ikuspegi naturalistiko batetik ezarriak dira, tokiak duen balio eta potentzial ekologiko handiarengatik. Ondare kultural eta arkitektoniko aldetik eremuaren barruan elementu gutxi gelditzen badira ere, giza paisaiari dagozkion adibide eta kasuak badaude eremu honen ertzetan.
- Paisai katalogoaren zirroborroan (CPSS9) aipatzen diren *“Paisai Kalitate Helburuen”* artean, honako hauek aipatzen dira:
 - Basustako EDAR⁵-en integrazioa hobetzea.
 - Korta Poligonoaren aurrean Urola ibaiaren ertzak hobetzea.
 - Beduaren pareko padura berreskuratzea.
- Giza paisaiaren ikuspuntutik eta arazo txikiak alde batera utzita, zonalde honek badu erdialdean guztiz naturala den zonaldea eta bestalde eraikitako bi auzo ditu: bata Bedua, eremuaren barrenean geratzen dena, eta bestea Artadi, gertu egon arren Plan Bereziko eremutik at dagoena.

Banaketa hau kontuan hartuta, honako arazoak antzematen dira:

Erdigunea: estuarioako ibaiertzak, padura, eta irlak:

- Artadiaren ertzean, ontziraleku baten eraikin bat dago, erabilpenik gabe eta bertan behera utzita. Eraikina kokatzeko lur mugimenduak egin ziren bere garaian eta ikus-eragina badu oraindik, nahiz eta baretuz doan. Presentzia handikoa da, ibaiatz bestaldeko eraikuntza bakarra, beraz inguruaren naturaltasunean zuzenean eragiten du. Eraikinak alboan duen zelaitxoak aldiz, kutsu atsegin bat du.
- 12. atalean aipatzen den Gorostiagako betelan erraldoiak ikus-eragin txikia du, nahiz ekologigoki eragina oso nabarmena izan.
- Basusta-Bedua artean erdi erorita dagoen ur ertzeko eraikin bat dago, ur maila baina pixka bat gorago, oso andeatua dago eta zuhaitz eta landare artean izkutatzen da. Bere horretan utz zitekeen.

⁵ Gaztelaniaz, Estación Depuradora de Aguas Residuales

- Ikuspegi aldetik, erdiko padura handi horrek, arazo bisual nabariak ditu bere bi ertzetan, Katalogoan aipatzen den moduan: bai Basustako EDAR-ek eta baita 'J.M. Korta' poligonoaren muturrak ere presentzia handiegia dute. Presentzia honen ikus-eragina gizakiarentzako handia da.

Bedua:

- Bedua auzo bat da, portu eta ontziola gisa sortutakoa. Arkitektura eta giza paisaiaren aldetik, multzoa da interesgarriena (nahiz multzoko eraikin nagusiaren kalitatea apartekoa den). Multzo hau oso orekatua da: eraikinen posizioak, elkarren arteko iherarkia... erabat egokiak dira. Arazoa, aldiz, honako hau da: izan zenari ezin eutsi dabil: eraikin lirain eta industrialak utzita daude, erortzen ari dira, auzoak urarekin zuen harremana desagertuta dago erabat (arrapalak, kaitxoak, eskilarak... erorita daude edota desegiten ari dira), eraikinen arteko "urbanizazioaren tonoa" (materialak, argiztapena...) gero eta txarragoa da... Arkitektura eta irisgarritasun aldetik oso egoera txarrean dagoen auzoa da. Aurreko irlatxoa zenaren kanala berriz irekitzeak (12. atalean aipatzen den eran) mesede egingo lioke dudarik gabe.
- Zementu Fabrika Zaharra: Beduako multzo arkitektonikoa osatzen laguntzen du, ongi sartuta dago topografian eta bera eta Lonjaren arteko gunea (orain aparkaleku moduan erabiltzen dena) "espazio publiko" interesgarria izan daiteke, erabiltzeko eta berreskuratzekoa. Fabrikaren aztarnak egoera txarrean daude. Kasu hauetan gertatzen den bezala, eraikin altuenak eraberritze zailagoa du, bajaran kasuan baino. Berreskuratzeak izugarritzko eragina izango luke multzoaren biziberritzean.
- Beduak badu zeharkako beste gain-presentzia bat: Oikiara joateko berritu zuten GI-3760 errepideak izugarritzko mendi mozketak du agerian eta Beduaren gainean geratzen da: lur estratoak agerian daude eta baretu beharreko eskalaz kanpoko eragina dauka.

Artadi:

- Auzo honen silueta da paisaia aldetik ezaugarriarik nagusia: bere presentzia eta ikusgarritasuna. Kasu honetan ere, eraikin multzoa da interesgarria dena. Eraikinen arteko oreka, bai topografiarekiko, baita hierarkia garbia mantentzean. Ezaugarri eta izaera orekatu hau, galdu daitezke eraikitzen ari den etxebizitza promozioa berriarekin, batez ere, eraikitako topografia eta landarediaren arteko orekari dagokionean.